



**Imanol Miner**

◆ EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO KIDEA

## Plazara, zertara?

HOLAXE galdetu zidan *abizpak*, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Herriko Plazan antolatutako elkarretartzera gonbidatu nuenean. Niretzat nabarmena zena berarentzat ez zen nonbait, eta gogora ekarri nion, 90etan, gay eta lesbianen eskubideen aldeko mugimenduetako arduradunek ezkontza eskubidearen alde egin behar genuela adostu zutenean, nola batek baino gehiagok bere buruari galdetu zion: plazara, zertara eta ezkontza eskubidearen defentsan? Horixe egin baikenuen, ekainaren 28an bezala, urteak dituen gainontzeko egunetan ere, 2005ean Espainiako Estatuan eta amaitzear dugun 2013an Frantziakoan, lege aldaketak gertatu diren arte, izan ere, helburua ez zen ezkontzea, gainerakoekin eskubide eta betebeharretan berdintasunean bizitzea baizik.

Sexu askapenerako borroka, feminismoa izan zuen aitzindari eta azken honek egindako aurrerabidearen erakusgarri da ARGIAren 2.392 alean, azaroaren 24koan, Estitxu Eizagirrek egindako erreportajea. Hezkidetzaz hezkuntzan du aztergaia, eta bertan, besteak beste, Elorrioko Institutuko esperientziaz eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetzaz eta Genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-Planaz dihardu. Bere esparrutik harago begiratzeko gai den edozein hizkuntza teknikariren bekaizkeria esnatzeko modukoa da artikulua, terminologian, edukietan, ikuspegietan eta lan prozeduretan puska bateko aldea ateratzen diolako ikastetxeetako edozein hizkuntza normalizazio plani.

Eta hau guztia diot, uste dudalako, euskalgintzak ere,

aurreko askapen prozesuak izango dituela aitzindari XXI. mende hastapen honetan. Horretarako, bere burua askapen prozesu gisa irudikatzen asmatu beharko du eta beste askapen prozesuekin aliantzak eraiki, hizkuntzen eta hiztunen berdintasun printzipioa eztabaidaren erdigunera ekarriz. Izan ere, egun indarrean dauden hizkuntza legeak berdintasun printzipioa urratzen dute eta honek eguneroko bizitzan botere harreman desorekatuak elikatzen ditu hiztun talde desberdinen artean, errealitatea desitxuraturaz, sufrimendua eraginez eta elkarbizitza zailduz.

*Egun indarrean dauden hizkuntza legeak berdintasun printzipioa urratzen dute eta honek eguneroko bizitzan botere harreman desorekatuak elikatzen ditu hiztun talde desberdinen artean*

Euskaltzaleon Topagunearen eskutik lehenengoz “Euskarak 365 egun” kanpainarekin, erakundeek ospakizun eta adierazpenekin osatutako Euskararen Nazioarteko Eguna kaleko oinezkoen ahotsa eta lekukotasuna gehitu nahi izan dizkiogu. Eguna geure egiteko, kolorea eta bizitza ematera atera gara kalera, dagokigun lekuan jartzera, hemen gaude esatera, askatzera, nonahi, noiznahi, orain, hemen, geu izateko euskararen herrian. ■



## IRITZIAREN LEIHOA

### BERTSO BERRIAK

#### IXA taldeari



DANI BLANCO

**Aitor Sarriegi Galparsoro**



**Doinua:** Espainian behera.

Lau lagun haziak bi mundu zeharo ezberdin uztartzea lortu du luzaro. Euskararen jendea ohizkotik harago Xri eransteaz oso harro dago beste X bat eta V bat gehiago.

Sarri esangatik urteurrenetan Mila zorion IXA! ...gaurkoan benetan. Zuk lortu duzulako daukazun urtetan tokia egitea non ta ikerketan! Emaitei begirako gizarte honetan.

Atzo zela dirudi baina aspaldi zen ordutik zenbat ordu, lagun eta izen... Ea asmatzen duzun luzaro segitzen hizkuntzaren puzzlean piezak aurkitzen eta hiztunarentzat tresnak eraikitzen. ■